

Eguraldia

Azken 40 urteetako udazken hezeena aurtengoa 2-3



Matraka

Kirol-apustu makinek duten menpekotasun arriskuaz GEHIGARRIA



Zerga sistemaren aurkako errekurtsioak ezetsi egin ditu EAeko Auzitegi Nagusiak

Luxenburgoko Auzitegiak irailean ezarritako irizpideetan oinarritu du erabakia, eta Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak fiskalitate propioa izateko eskubidea dutela berresten du

Gaztela eta Leongo Gobernuak, Errioxako Gobernuak eta Errioxako UGT sindikatuak Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea aurkeztuko dutela iragarri dute 15



→ **Domina hunkigarria.** Mikel Laboak jasotzekoa zuen Gipuzkoako Urrezko Domina eman zien atzo Gipuzkoako Foru Aldundiak Marisol Bastida kantariaren alargunari eta Agurtzane Laboa alabari, instituzioen lehen omenaldian. Laboaren izenean, alargunak eskerrak eman zizkien kantaria bizi zela lagundu zutenei, eta, familiaren izenean, kantariari eman zizkion eskerrak, berarengandik jaso zutenagatik. 38-39

Ondasunen gaineko zerga kentzea erabaki dute UPNk, PSNk eta CDNk

Erabakia aurrekontuetan jaso dituzten zerga erreformetan hartu dute, eta, ondorioz, Nafarroako Ogasunak 53 milioi euro gutxiago bilduko ditu 8

ANVren legez kanporatzea ez etetea erabaki du Auzitegi Konstituzionalak

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hauteskundeak egin baino lehen hartuko du legez kanporatzearen aurka jarrita dagoen helegitearen gaineko erabakia 10

EPPK-k larri dauden presoak kaleratzea lorpena dela aldarrikatu du

«Askatasuna 'espetxe arindu'-arekin mozarrotu badute ere» horren ondorioz gaixo horiek etxean daudela dio Preso Politikoen Kolektiboak 12

Egoera nahasia sortu da Ginean, presidentea hil ostean izan den estatu kolpean

Militar kolpistek egoera euren kontrolatzen dutela zabaldu dute, baina lehen ministroak Gobernu ez dela desegin ziurtatu du, eta armada leial zaiola 17

Alavesek Manix Mandiola entrenatzailea fitxatu du 21

Oharra. Bihar, Eguberri eguna, BERRIA egunkaria ez da argitaratuko. Datorren ostiralean, abenduaren 26an, kioskoan izango gara berriro.

Gipuzkoako Urrezko Domina Mikel Laboarentzat →



Juan Jose Ibarretxe, Marisol Bastida (Laboaren alarguna), Agurtzane Laboa (alaba), Markel Olano eta Bernardo Atxaga, atzoko ekitaldiko une batean. JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Euskal kulturaren munduko sortzaile eta eragile ugari bildu zituen atzo Gipuzkoako Foru Aldundiak Mikel Laboari dagokion Gipuzkoako Urrezko Domina haren familiari emateko antolatu zuen ekitaldian.

Laboak emandakoa gogoan

Juan Luis Zabala Donostia

Gure izenean, esker bereziak berari, eman digunagatik», esan zuen atzo, hunkituta, Marisol Bastidak, Mikel Laboaren alargunak, bere senar zenaren partetik jende askori eskerak eman ondoren. Familiako kideekin batera, euskal kulturaren munduko sortzaile eta eragile ugari eman zizkieten atzo eskerak Mikel Laboari, erakundeetako ordezkariekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Laboari dagokion Urrezko Domina familiari emateko antolatutako ekitaldian.

Euskal musikarien ordezkari-tza oso zabala izan zen atzo Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi aretoan egin zen ekitaldian: Xabier Lete, Benito Lertxundi, Antton Valverde, Ruper Ordorika, Juan Carlos Perez, Jabier Muguruza, Xabier Montoia, Natxo de Felipe, Anari, Karlos Osinaga Txap, Mikel Markez, Josean Bengoetxea, Oreak TX taldeko kideak...

Horieta gain han izan ziren honako hauek ere: JosAnton Artze

eta Jose Angel Irigarai idazleak; Jose Luis Zumeta pintorea; Fernando Bernues antzerki zuzendaria; Andoni Egaña, Iñaki Murua eta Maialen Lujanbio bertsolariak; Martxelo Otamendi BERRIA-ko zuendaria, Joxean Lizarribar EKTko Administrazio Kontseiluko lehendakaria eta Pello Urzelai BERRIAKO kazetari eta *Mikel Laboa* liburuaren egilea; eta hainbat ordezkari politiko ezagun, hala nola Miren Azkarate, Xabier Arzallus, Rafaela Romero, Maria Jesus Aranburu, Iñaki Galdos...

Laboa, herritarrena

Jaime Otamendi kazetariak gidatu zuen ekitaldia. Familiari eskerak eman zizkion Otamendik, berriro ere —beti bezala— Laboari herriarena eta herritarrena izaten uzteagatik, Laboari hegoak ez mozteagatik.

Ondoren, Mikel Laboaren argazki zaharrak eta hiru kanta —*Haika mutil, Izarren hautsa* eta *Txoria txori*— biltzen zituen bideo-lan bat eman zuten, Bernardo Atxagak Laboaren laudoriozko hitzaldia egiteko hitza hartu aurretik.

Iñaki Salvador eta Josetxo Silguero musikariek hartu zuten txanda gero, eta Mikel Laboaren hainbat kantu ezagun eman zituzten, grabazioen laguntzaz: *Langile baten galderak liburu baten aurrean; Antzinako bihotz, Baga, biga, higa; Txinaurria; 37*

Esker bereziak eman zizkion Bastidak Laboari, «eman digunagatik»

Dominak agur sentitua eta esker ona batzen dituela adierazi zuen Markel Olanok

galdera... Jon Maia dantzariak dantza egin zuen, oinutsik, kantuetako batean.

Atxagak Laboaren heriotzean hari eskainitako poema errezitatu zuen gero, abenduaren 7an Agiñan, Laboaren errauntsak hazatu zituzten ekitaldian, errezitatu zuen bera, Orixek Lizardiren heriotzean hari eskainitako *Beti lagun* poemari oinarritua.

Marisol Bastidak, Agurtzane Laboa alaba ondoan zuela, Mikel Laboaren partetik eskerrak emateko baliatu zuen bere tartea ia osorik. Aldundiari eta erakunde-ei domina eman izana eskertzeaz gain, Laboari lagundu zioten lagunak oroitu zituen, arlo bakoitzetik banaka batzuk hautatuz ordezkari gisa: Iñaki Salvador eta Josetxo Silguero musikarien artean; JosAnton Artze, Joseba Sarrionandia, Xabier Lete eta Bernardo Atxaga, idazleen artean, Bertolt Brecht ahaztu gabe, Brechtek estetikatzen zuen teoria oso maitea baitzuen Laboak; artista plastikoetan, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi, Gabi Ramos Uranga, Vicente Ameztoui eta Jose Luis Zumeta, Laboaren adiskide handia, eta Laboaren disko guztien azalen egilea 1969az geroztik; argazkilarien artean, Arturo Delgado eta Fernando Larrukert, besteak beste; teknikarrietan, Jose Luis Zabala, Jean Phocas eta Anjel G. Katarain, eta musikaz aparte teknikan Jose Luis Agote; Goiztiri, Herri-Gogoa eta Elkar argitaldariak; antolatzaileak; publikoa...

Azken hitzetan, Mikel Laboaren ordezkari mintzatzeari utzita, Mikel Laboari berari eman zizkion eskerrak Marisol Bastidak, familiaren izenean, «eman digunagatik».

Markel Olano ahaldun nagusiak alderdi askotatik laudatu zuen Mikel Laboa. «Dominak bi alde ditu», esan zuen: «Laboaren gan xalotasuna eta ausardia bat diren bezala, nortasuna eta herritasuna urre berekoak diren bezala, muturreko ikerketa eta antzinako aurkikuntza distira berean biltzen diren bezala, gure domina honek agur sentitua eta esker ona bat egiten ditu».

Euskaldunak, Laboaz «harro»

Idatziz zeukana alde batera utzita, aurrean paperik gabe mintzatu zen, ekitaldiaren amaieran, Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakaria, eta Laboari zuzendu zitzaion une batez: «Jakin behar duzu zuk egindakoarekin euskaldunok harro sentitzen garela».

Bestalde, Donostiako Udalak atzo jakinarazi zuen Donostiako Urrezko Domina emango diola Mikel Laboari.

Gipuzkoako Urrezko Domina Mikel Laboarentzat → Bernardo Atxagaren hitzaldia

Elurraren irudia ardatz hartuta, Mikel Laboaren bataila artistikoaren hainbat atali buruzko gogoetak egin zituen atzo Bernardo Atxagak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi aretoan, Laboaren laudoriozko hitzaldian.

Bataila artistiko baten laudorioa

J.L. Zabala Donostia

Mikel Laboa hil zen egunean elurra izan zen Arabako leku askotan, eta ume batek esan zuen, albistea eman ziotenean, ederra zela hala-ko egun batez hiltzea». Hitz horiekin hasi zuen atzo Mikel Laboaren laudoriozko hitzaldia Bernardo Atxagak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jargi aretoan. Emily Dickinsonen *We like March* poema gogorarazi zion Atxagari umearen esaldiak, biek bat egiten baitute ideia batean: «Funtsezkoa da une zailetan edertasuna lagun izatea». Horretaz egin zuen gogoeta *Elurra 1* atalean.

Elurra 2 atalean, 1789an Aveyrongo (Frantzia) baso batean biluzik eta bakarrik agertu zen Victor basaua autistaren kasua gogoratu zuen, eta nola elurrak pozez garrasika jarri zuen Victor neguko goiz batez. «Soilik bi alde, bi ertz, harremanean: elurra bere indarrarekin, eta Victorren espiritu inozentea edo, nahi bada, hutsa».

Elurra 3 atalean, Mikel Laboa psikiatrian espezializatutako medikua zela ekarri zuen gogora Atxagak, eta haur autista eta atzeratuekin lan egin zuela. Lanbidearen eta kantagintzaren artean «harreman bat» egon zitekeela uste zuen Laboak —hala adierazi zion Lorea Agirre kazetariari *Euskaldunon Egunkaria*-n argitaratutako elkarrizketa batean—, harreman horretaz modu kontzientean oharturik ez zegoen arren.

Laboa bere lan esperimentaletan «ausarta» izan zen, «baina batez ere oso askea, librea», Atxagaren iritziz, eta horrek bazuen zerikusirik bere lanbidearekin.

«Askatasunak, artearen alorean, bi lan eskatu izan dizkio



Bernardo Atxaga, Mikel Laboaren laudoriozko hitzaldiaren une batean. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

sortzaileari», esan zuen atzo Atxagak. «Lehenik, sortzaile horrek aurre egin behar izan dio gizar-tearen presioari, haren eskara eta zentsura guztiei amore eman gabe; bigarrenik, aztertu eta berriro pentsatu behar izan ditu tradizioz jasotako espresamoldeak, eta espresamolde horien arauak, akademiarenak bezala akademiak kanpokoak, sarrienik gaiztoenak; ez noski, jostaketa moduko bategatik, baizik eta barenko zein kanpoko errealitatea hobeto eta ederrago adierazteko ahaleginari jarraiki. Eta halaxe Mikel Laboak. Beste arrazoen artean, bere psikiatra formazioak, eta bere psikiatra lanak, joera hori hartzen lagundu ziolako».

Jendearen isekei eta txistuei ere aurre egin behar izan zion Laboak, batez ere *lekeitioak* zuzenean ematean. Ez zen hori izan hala ere okerrenea. «Mikel Laboak joka-

tutako bataila artistikoan aldian behineko txistuak ez ziren izan ezer; egokitu zen uko gaiztoagoe-kin, ikusi zuen bere burua bakar-tua edo gutxietsia».

Jose Luis Zumeta pintoreak *Lekeitioak* diskorako egin zuen Laboaren definizioa oso gustuko du Atxagak: «Itsasgizon bakartia gerraontzi batean». «Zumetak, askotan sumatu izan diodan zorrotasunarekin, bete-betea aipatzen du egia. Laboaren askatasuna handia izan zen; emaitza, aparta; baina ibilera ez da lorategi batean zehar egindako *promenade* bat izan». Laboaren ausardia eta Laboaren borroka ageri dira Atxagak hari eskainitako *Viking* «erretiratu-poema» ere.

Elurra 4 atalean, Laboak komikoak eta pailazoak oso gustuko zituela ekarri zuen gogora Atxagak: Charlie Chaplin, Buster Keaton, Mario Moreno *Cantinflas*,

Charlie Rivel, Colombayoni... Laboak bezala, abangoardiako artista askok —Joan Brossa aipatu zuen Atxagak adibide paradigmatico gisa— maite izan dute parodia, absurdua. «Joera horren oinarrian hizkuntza artistiko eta ez artistikoei buruzko mesfidantza suma daiteke. Hizkuntza asko, idazteko, pintatzeko edo kantatzeko modu asko, hutsik daude, ez dute ezer egiazkorik espresatzen. 'Beraz —diote artista horiek— irauli ditzagun, eman diezaiegun buelta beren azpi ustela nabarmentzearen'. Eta horrelaxe Mikel Laboak».

Artearen oinarri morala

«Artearen oinarria ez dago artearen baitan, kanpoan baizik», egin zuen gogora Atxagak *Elurrak 5* atalean. «Artearen oinarria morala da». Eta Mikel Laboak ere izan zuen oinarri hori bere jardur-

nean. «Ez zen formaz bakarrik arduratu; orain, bere konpromisoa zehazten duten izen batzuk aipatuko ditut, kantatu zituen letren hainbat egilerenak: Jos Anton Artze, Xabier Lete, Joseba Sarrionandia, Bertold Brecht, Xalbador, Salvador Espriu, Atahualpa Yupanqui... Gehitu izen horiei eus-



Laboaren askatasuna handia izan zen; emaitza, aparta; baina ibilera ez da 'promenade' bat izan»

«Ez dakigu zer egingo zuen isolatuta; dakiguna da Marisol Bastida lagun zuela ez zuela etsi»

BERNARDO ATXAGA
Idazlea

kal kanta herrikoiak, eta gehiena esana dago».


Ausardiaz eta askatasunez lan egiteko, interlokutoreak behar ditu artistak, kideak, eta Laboaren kideez mintzatu zen Atxaga *Elurra 6* atalean: Juan Jose Lasa psikiatra, Jarrai antzerki taldeko kideak, Ez Dok Amairuko kideak, *ikimilikiliklik* bidekidekariko lagunak, hainbat artista plastiko, Iñaki Salvador, Josetxo Silguero eta beste hainbat musikari... Guztien buru, ordea, Marisol Bastida. «Ez dakigu zer egingo zukeen Laboak isolaturik egon izan balitz; dakiguna da Marisol Bastidaren laguntzarekin ez zuela etsi. Eta horregatik gaude gu denok hemen, jaunak eta andreak».

Azken elurra laburra izan zen: «Haren hitzak, haren kantak, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal, elur gainean txorien hankek utzitako arrastoak bezalaxe...».

LITERATURAREN PLAZERRA

elkar

www.elkarargitaletxea.com



GAU ILUNEOAK
Joseba Sarrionandia